

BERTSOKARIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ALDIZKARI DIGITALA

2020ko Ekaineko alea

GASTEIZ
BERTSOZALE

BERTSO IKASGELA

SARRERA ALBISTEAK GURI BURUZ IKASTETXEAK IKASLEEN TXOKOA



PISTOLERO JOLASA

Hitz bat emango zaigu eta ea azkar sakatzen dugun berekin errimatzen duen hitza. Adi, tiroak huts egin gabe!

Segi irakurtzen



Berriro jolastu nahi?

Hauek dira aste honetan ikasgelatan egin ditugun jolasak!



Bertso sortak

Bertso jarriak, musikakuta. Kanta dezagun!



Bat-bateko saioak

Gozatu plazako bertsoaldi onenekin!

ALBISTEAK



Xalbadorri txistuak

Ekainaren 11 zen, 1967ko Txapelketa. Historiako une esanguratsuenetako bat gertatzera zihoan... Zer gertatu zen jakin nahi?

2020-06-10

Gasteizko Udala eta ikastetxeen elkarlanari esker urtero bertsoalaritzaren inguruko programa eskaintzen da Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Guztira 17 ikastetxetako 43 gelatan landu dute bertsoalaritza. Peru Abarategi, Xabier Lasa eta Uxue Diaz de Cerio 15ean behin ordu betez izan dira gela bakoitzean. Adurtza, Angel Ganivet, Barrutia, Abetxuko, Toki Eder, Lakuabizkarra, Luis Elejalde, Ramon Bajor, Olabide, Umandi, Armentia, Abendaño, Mariturri, Zabalzana, Arantzabela, Aranzabizkarra eta Iksabidea izan dira parte hartu duten ikastetxeak.

Bertso-ikasgela izan da aurtengo protagonista nagusia, bai gela fisikoan baita birtualetan ere, sarean baitaude edukiak, haurren ekoizpenak eta material osagarri guztiak. Horri esker konfinamenduan ere bertsoalaritza modu dibertigarri batean lan-tzen jarraitzeko aukera izan da Gorbeialdean.

Hizkuntza jolasteko tresna bezala erabili dute, sortzeko eta euskara aberaste-ko aukera izan dute Gasteizko 1035 ikasleek. Aurrez aurreko klaseak izan dituzte martxora arte eta martxotik ekainera bideodeiak eta plataforma digitalak baliatu dira, www.bertsoikasgela.eus bidez elkarrekin bertsoan jarraitzeko. Aurrez aurre hobeto, baino esperientzia polita izan da!



GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egín KLIK bertsoak ikusteko !!!

[Abendaño 5.A](#)

[Abendaño 5.B](#)

[Abendaño 5.D](#)

[Abetxuko 5.maila](#)

[Adurtza 5.A](#)

[Adurtza 5.B](#)

[Angel Ganivet 5.A](#)

[Angel Ganivet 5.B](#)

[Angel Ganivet 5.C](#)

[Aranbizkarra 5.A](#)

[Aranbizkarra 5.B](#)

[Arantzabela 5.A](#)

[Arantzabela 5.B](#)

[Armentia 5.A](#)

[Armentia 5.B](#)

[Armentia 5.D](#)

[Barrutia 5.A](#)

[Barrutia 5.B](#)

[Ikasbidea 5.A](#)

[Ikasbidea 5.B](#)

[Ikasbidea 5.D](#)

[Lakuabizkarra 5.A](#)

[Lakuabizkarra 5.B](#)

[Lakuabizkarra 5.C](#)

[Luis Elejalde 5.A](#)

[Luis Elejalde 5.B](#)

[Mariturri 5.1](#)

[Mariturri 5.2](#)

[Olabide 5.A](#)

[Olabide 5.B](#)

[Olabide 5.D](#)

[Olabide 5.E](#)

[Ramon Bajo 5.maila](#)

[Toki Eder 5.A](#)

[Toki Eder 5.B](#)

[Toki Eder 5.C](#)

[Umandi 5.A](#)

[Umandi 5.B](#)

[Umandi 5.C](#)

[Zabalgana 5.A](#)

[Zabalgana 5.B](#)

[Zabalgana 5.C](#)

[Zabalgana 5.D](#)

GASTEIZEN ere... bertsoa bizi gazte!



[BBG Konfinamenduan](#)



[SARI BANAKETA ONLINE](#)

Ikasturte honetan zehar ere "Bertsoa bizi gazte" egitasmoa eraman da aurrera Arabako eskola gehienetan. Egitasmo honen helburua bertsolaritza, rapa eta musika lantzea da. Instituto eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Gure kasuan Gasteizko DBH 3. eta 4. mailako ikasleek lau eta hiru ordutako tailerrak landu dituzte Xabier Lasarekin. Hauek izan dira aurten tailerra egin dugun ikastetxeak: Armentia, Ekialde, Herrandarrak, Ikasbidea, Olabide eta Zabalgana.


Horrez gain "Bertsoa Bizi Gazte" bideoklip lehiaketa jarri genuen martxan udaberrian. Araba osotik bideo desberdinak egin dituzte gazteek konfinamendu bete betean, gure eskualdetik bideoklip 1 aurkeztu da eta baita publikoaren saria eraman ere! Ezkerreko zutabearen zutabe bideoklipak eta horiek ikusteko loturak eta sari banaketa klik batean. Gasteizko Amaia Bertsoko eskola-koek lortu zuten saria eta Irailaren 1, 2 eta 3an egonaldi bat izango dute beste sarituekin batera. ZORIONAK!!!

INFORMAZIO GEHIAGO:



KUADRILARTEKOAN

Azken urteetan bezala aurten ere Gasteizek ordezkari izan du Kuadrilarteko bertso txapelketan, 5 talde hain zuzen ere, Errexala, Sumendiola bete poto, Kakiturriko gladioloreak, Muinoko katuak resurrection eta Bazaar Xanmapelezuin. Ohikoa den bezala umore ona eta giro ederra izan ziren nagusi. Konfinamenduan bertsoan jarraitu dute irrati bidez, [1](#), [2](#) eta [3](#). Eta bertso gosez daudela dirudi, COVID 19ak bertsoak sare sozialetara konfinatu bagaitu ere, plaza "normaltasun berrian" udako bertsoak bueltatuko dira plazetara.





XXV.

ESKOLARTEKOA

(14 urtez azpikoak)

Martxotik maiatzera bitartean, 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek bertso idatzien lehiaketan parte hartzeko aukera izan dute. Bertsolaritza ikastetxean edo bertso-eskolan lantzen duten 700 ikasle

inguruk parte hartu dute. Ziber-festa, mozorro eta jai giroan eman zaio amaiera, 14tik beherakoen XXV. Arabako Bertso Eskolarteko online beriziari, nola bestela.

2020ko udaberrian Arabako haur zein gaztetxoek, etxetik, kobazuloaren barren barrenetik ateratakoak izan dira egindako bertso lanak. Saguzarren erara oinak buruan jarrita!

Zein animalia bihurtuko lirakeen, ikusezin balira zer egingo luketen edota mundua nola ikusten duten erakutsi dute errimak josiz, koplak osatuz. Egoerak egoera, aurtengoa ere polita izan da, eskerrik asko Araba mailan parte hartu duzuen 700 bertsolari txikiei.

Hurrengo urtean gehiago! Zahar zein gazte, sorgin eta saguzar, mutil zein neska, pirata edo yogalari, denak ere ameslari...

[SARI BANAKETA ONLINE](#) ikusi dezakezue:

(Sarituek HONTZA EXTREM abentura parkean goiz pasa izango dute irailaren 13an)

Lehen fasera igarotako lanak, tartean GASTEIZKO lan aukeratuak hemen daude GOZATU:

[ESKUALDEZ ESKUALDEKO LAN AUKERATUAK](#)



BERTSO ESKOLAK

Gasteizko bertso eskolak ez du etenik izan ikasturte amaiera arte, konfinamendu betean ere ez, jotake aritu dira pantailatik pan-tailara, etxetik etxera, gaiak jarri eta bertsoan elkar zirikatatu eta ondo pasatuz.

Aisialdian gozatzeko arnagunea izan da bertso-eskola zailtasunen gaintetik irudimenez eta irribarrez aritzeko tokia. Datorren ikasturtean zuk ere

[IZENA EMATEKO](#)

